# IKASTAROAREN FITXA

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren izena[1] | **ULERRIZKETA tailerra** |
| Arloa[2] | 10. Kalitatea eta gestio hobekuntza |
| Helburua[3] | ***Ulerrizketa metodologia***k aukera zabaltzen du lantokian euskaraz ulermen maila mugatua duten lankideen ("ulertzaileak") eta euskaraz ongi egiten dutenen artean ("mintzatzaileak") hizkuntza ohitura aldatu eta euskara erabiltzen hasteko. Saio honen helburu nagusia da lanean ulerrizketa praktikan jar dezaketen lankideei metodologia honen gako nagusien berri ematea eta adibide praktikoak erakustea.<br><br>EUSKARALDIA laster datorrela aprobetxatuz, ***Ulerrizketa metodologia*** lagungarria izan liteke ARIGUNEAK sortzeko eta zabaltzeko lanean. |
| Ikastaroaren deskribapen orokorra | **Tailerra hitzaldi formatibo-dibulgatibo bat** izango da. Bertan *Ulerrizketa* zer den modu praktiko batean erakutsiko da (azalpenak, gako nagusiak azaldu, adibideak eman, ariketa batzuk egin...). Ideia nagusi eta gako horiek ezagututa, ondoren bakoitzaren esku legoke lankideekin horiek aplikatzen hastea. **Lehen hurbilpen bat** litzateke, baina hainbat jenderentzat nahikoa izan litekeena "txip aldaketa" bat egiteko eta lankide batekin *Ulerrizketa*-ren bidetik euskaraz hitz egiten hasteko (modu egokituan).<br><br>Kontuan izanda **Euskaraldiaren helburu nagusia** herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea dela. Eta 2020an, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den ariketa denez, *Ulerrizketa* aukera paregabea da horretara bideratzeko. Aurten, norbanako bezala (***ahobizi*** edo ***belarriprest*** izanez), parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu ***arigune***–en bidez. |
| Ikastaroaren maila[4] | Oinarrizkoa |
| Ikastaroaren eduki zehatza[5] | - Ulerrizketa: zergatik eta zertarako? |

[1] Behar bezain deskriptiboa izango da eta ikastaroaren gaia zehaztuko du.

[2] AZPkoen Prestakuntza Plan Nagusian 18 jakintza arlo daude jasota:
01.Ekonomiko-finantzarioa, 02. Juridikoa, 03. Adademia-kudeaketa, 04. Giza baliabideak, 05. Hizkintzak, 06. Osasuna, segurtasuna eta ingurumena, 07. Informatika eta multimedia, 08. Liburutegiak eta fitxategiak, 09. Laborategiak eta tailerrak, 10. Kalitatea eta hobekuntza dudeaketan, 11. Lanpostu jakinei dogoskien arlo espezifikoak, 12. Ikerdetaren kudeaketa.

[3] Prestakuntza ekintza gainditu ondoren ikasleak lanpostuan zertarako gai izan behar lukeen zehaztu eta azaldu.

[4] Oinarrizko maila: ikasleak hasierako ezagutzak lortuko ditu eta oinarrizko prozedurak aplikatzen ikasiko du. / Maila ertaina: ikaslea gai izango da ezarritako prozedurak aldatzeko eta bateratuko ditu ezagutzak eta prozedurak. / Maila aurreratua: ikaslea gai izango da prozedura berriak sortzeko eta ezagutzak beste pertsona batzuei transmititzeko.

[5] Prestakuntzaren helburuak lortzeko ikasleak eskuratu, gogoratu eta transferitzen jakin behar dituen ezagutza eta trebetasunen multzoa. Interesekoa izan behar da UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntzarako eta hobekuntzarako.

| | |
|---|---|
| | - "Ulertzailea": perfila eta jokaeraren gako nagusiak<br>- "Mintzatzaile" modura jokatzea: gako nagusiak<br>- Ulerrizketaren praktika: adibideak eta ariketak<br>- Ulerrizketa praktikan jartzeko aukerak eta aholkuak<br>- Ulerrizketa eta Euskaraldia 2020 |
| Norentzat[6] | Hiru perfileko lankideei zuzendua dago saioa:<br>a) Euskaraz ulertzeko "tarteko" maila duten lankideak (B1 ingurukoa), "**ulertzaile" izan daitezkeenak** (badu lotura Euskaraldiko "belarriprest" figurarekin).<br>b) Euskaraz ahoz ongi moldatzen diren lankideak (C1 ingurukoa), **"mintzatzaile" izan daitezkeenak** (badu lotura Euskaraldiko "ahobizi" figurarekin).<br>c) **Ulerrizketaren aplikazioan interesa/ardura izan dezaketen** lankideak (formazio arduradunak, pertsonal arduradunak, euskara teknikariak...). Aurrera begira lankideei Ulerrizketaren berri emateko edo Ulerrizketa praktikan jartzeko aukerak zabaldu ditzaketenak.<br><br>Saiora bakarka etor litezke aipatu hiru perfiletako lankideak baina, posible den kasuetan, aukera polita litzateke egunokoan hurbileko lankide erreal diren "ulertzaile" eta "mintzatzaile" perfileko lankideak saiora ELKARREKIN etortzea. Hala egiten dutenek aukera izango dute bertan egingo diren ariketa praktiko laburrak elkarrekin egiteko, gerora lanean elkarrekin ***Ulerrizketan*** aritzeko lehen pausoa ematea erraztuz. |
| Ikasle kopurua[7] | Hiru campusetan. Talde bakoitzean 25 lagun. |
| Ikasleek aurretik eduki beharreko ezagutzak | "Ulertzaile" potentzialen kasuan, tarteko ulermen maila izan behar dute (B1 ingurukoa), eta lankideek haiei euskaraz egin diezaieten interesa edo prestutasuna.<br>"Mintzatzaile" potentzialen kasuan, euskaraz hitz egiteko gaitasun ona izan behar dute (B2 edo C1) eta euskaraz gaitasun mugatua duten lankideei "euskara egokituan" edo errazean aritzeko prestutasuna (besteak beste ***ele biko elkarrizketak*** baliatuz). |
| Irakaskuntza modua (ikasgelakoa edo on-line) | Presentziala |
| Ebaluazio sistema (bukaeran ebaluaziorik egongo da: bai/ez) | Ez |
| Ikastaroaren iraupena (orduak guztira) | Ikastaroa aurrez aurreko 2 orduko saio bat. |

[6] Zehaztu behar da zein kolektibori zuzenduta dagoen: taldea, eskala, unitatea, ikastegia eta campusa.
[7] Gutxieneko eta gehieneko ikasle kopurua. Hala dagokionean zehaztuko da zenbat plaza gordeko diren karrera profesionala garatzeko interesa duten langileentzat.

| | |
|---|---|
| Hizkuntza[8] | Euskara "egokitua"[9] |
| Ziurtagiri mota[10] | Bertaratze ziurtagiria |
| Izaera | Bolondresa (ez zaie ordutegi-kredituri k kenduko tailer hau egiten dutenei ) |
| Irakasleak | Soziolinguistikako Klusterra. Aldahitz Proiektuko ikerlariak: Pello Jauregi Etxaniz eta Pablo Suberbiola Unanue. |

[8] Prestakuntza ekintzak EAEko bi hizkuntza ofizialetan izango dira (gaztelaniaz eta euskaraz), betiere horretarako aukera badago honako hauek kontuan hartuta: ikasleen eta irakasleen hizkuntza maila, ikasmateriala hizkuntza bietan dagoen ala ez dagoen, eta zenbatekoa den ikasleen eskaria.
9 Saioa euskaraz emango da, baina "euskara egokituan", "ulertzaile" batek (B1) jarraitzeko moduan. Eta saioan zehar aldiro konprobatuko da haiekin ongi jarraitzen ari direla. Bestalde, zabalkunderako komenigarri izan liteke zati bat gaztelaniaz egitea.
[10] 1) Bertaratze ziurtagiria: bertaratze ziurtagiriak emango dira ikastaroan ez dagoenean irakasleek ebaluatu beharreko probarik. 2) Onuraz parte hartzearen ziurtagiria: onuraz parte hartzearen ziurtagiriak ikastaroaren arduradunak jarritako proba edo ariketa praktikoak gaindituz gero emango dira.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# FICHA DEL CURSO

| | |
|---|---|
| Título del curso[11] | **Taller de ULERRIZKETA** |
| Área[12] | 10. Calidad y mejora de la gestión |
| Objetivo[13] | ***La metodologia Ulerrizketa*** abre muchas posibilidades al personal trabajador que tiene limitaciones a la hora de hablar euskera ("ulertzaileak") con el personal que habla bien la lengua. ("mintzatzaileak") y así poder cambiar hábitos y empezar a hablar en euskera. El principal objetivo de este taller es poner en práctica este diálogo, explicando la metodología para ello y poniendo ejemplos prácticos para lograrlo.<br><br>Aprovechando que pronto viene el EUSKARALDIA, esta metodología "***Ulerrizketa"*** puede ser muy útil para crear ***ARIGUNEAK*** en los lugares de trabajo. |
| Descripción general del curso | **El taller será una charla formativa-divulgatiba.** En ella se enseñará que es la metodología Ulerrizketa de manera práctica (explicaciones, claves principales, dar ejemplos y hacer unas prácticas...). Conocida la idea principal y esas claves, estaría en manos del personal poner en práctica lo aprendido con el resto de compañeros y compañeras.<br><br>**Un primer acercamiento sería,** que pudiera ser suficiente en un primer momento, un "cambio de chip", y comenzar con algún compañero/a hablando en euskera de forma adecuada, de la mano de esta metodología. Teniendo en cuenta que el objetivo principal del **Euskaraldia** es cambiar los hábitos lingüísticos de la población para aumentar el uso del euskera. Y teniendo en cuenta que este va a ser un ejercicio que se va a dar del 20 de noviembre al 4 de diciembre de 2020, el taller de Ulerrizketa es una oportunidad excepcional para encaminarse en este objetivo.<br><br>Este año, además de participar individualmente como (***ahobizi*** o ***belarriprest),*** existe la posibilidad de participar en grupo a través de los **arigunez**. |
| Nivel del curso [14] | Básico |

[11] El título del curso será lo suficientemente descriptivo e identificativo y delimitará el objeto de la acción
[12] En el II Plan Integral de Formación para el PAS están recogidas 12 áreas de conocimiento:
01.Económico-Financiera, 02. Jurídica, 03.Gestión Académica, 04.Recursos Humanos, 05. Idiomas, 06. Salud, seguridad y medio ambiente, 07. Informática y multimedia, 08. Bibliotecas y archivos, 09 Laboratorios y talleres, 10. Calidad y mejora en la gestión, 11. Específicas de determinados puestos, 12. Gestión de la Investigación.
[13] Identificará y describirá aquello que el alumnado debería ser capaz de hacer en un puesto de trabajo después de haber acreditado la superación de la acción formativa
[14] Nivel básico: el alumno/a obtendrá conocimientos iniciales y aplicará procedimientos básicos/ Nivel intermedio: el alumno/a podrá modificar procedimientos establecidos e integrará conocimientos y procedimientos/ Nivel avanzado: el alumno/a será capaz de generar nuevos procedimientos y transmitir conocimientos a otras personas

| | |
|---|---|
| Contenido detallado del curso[15] | - Ulerrizketa: zergatik eta zertarako?<br>- "Ulertzailea": perfila eta jokaeraren gako nagusiak<br>- "Mintzatzaile" modura jokatzea: gako nagusiak<br>- Ulerrizketaren praktika: adibideak eta ariketak<br>- Ulerrizketa praktikan jartzeko aukerak eta aholkuak<br>- Ulerrizketa eta Euskaraldia 2020 |
| Tipo de destinatarios/as[16] | El taller está dirigido al personal trabajador de tres tipos:<br>a) Personal que tenga un "nivel medio" para entender euskera (alrededor del nivel B1) que pudieran ser "**ulertzaileak**". Y que tiene relación con la figura de "belarriprest" del Euskaraldia.<br>b) Personal que se maneja bien hablando (alrededor del nivel C1) que pudieran ser "**mintzatzaileak**". Y que tiene relación con la figura de "ahobizi" del Euskaraldia.<br>c) Personal que tuviera interés en la aplicación de la metodología Ulerrizketa (responsables de formación, responsables de personal, técnicos de euskera...). Que pudieran dar a conocer y tuvieran la posibilidad de poner en práctica esta metodología de ulerrizketa<br><br>Al taller pueden asistir personas de los tres perfiles de manera individual, pero en los casos que sea posible estaría bien que acudieran JUNTAS personas de tipo "ulertzaile" y "mintzatzaile" que compartan espacio y trabajo. El personal que acuda de esta manera, tendrá opción de realizar las pequeñas prácticas que se lleven a cabo, para a posteriori dar el primer paso para la ulerrizketa más fácilmente. |
| Número de destinatarios/as[17] | En los tres campus. 25 personas en cada grupo.. |
| Conocimientos previos necesarios de los destinatarios/as | En el caso potencial de los "ulertzaileak", un nivel intermedio de euskera (alrededor del B1), y que tengan interés de que sus compañeros/as les hablen en euskera.<br>En el caso potencial de los "mintzatzaileak", un nivel bueno de euskera (alrededor del B2 o C1), y que tengan interés de hablar de manera fácil y comprensible a sus compañeros/as en euskera, (si fuera necesario con conversaciones bilingües). |
| Modalidad docente (presencial u on-line) | Presencial |
| Sistema de evaluación (habrá una evaluación final: sí o no) | No |

[15] Contenido detallado del curso. Conjunto de conocimientos y destrezas cuya adquisición, retención y transferencia aseguran el logro de los objetivos formativos. Deberá ser de interés para la formación y el perfeccionamiento del personal de administración y servicios de la UPV/EHU
[16] Se especificará al colectivo al que está dirigido: grupo, escala, unidad, centro, Campus al que está dirigido
[17] Número mínimo y máximo de participantes, con indicación del número de plazas que, en su caso, se reserven preferentemente para el personal interesado en el desarrollo de la carrera profesional

| | |
|---|---|
| Duración del curso (horas totales) | Una sesión presencial de 2 horas. |
| Idioma[18] | Euskera "adaptado" |
| Tipo certificado[19] | Certificado de asistencia |
| Carácter | Voluntario (no se restará crédito horario a las personas participantes en este taller). |
| Profesorado | Soziolinguistikako Klusterra. Investigadores del Proyecto "Aldahitz": Pello Jauregi Etxaniz y Pablo Suberbiola Unanue. |

[18] Las lenguas de uso de las acciones formativas serán las dos lenguas oficiales de la CAPV, el castellano y el euskera, siempre que las circunstancias lo permitan: nivel de conocimiento del personal destinatario y del profesorado, disponibilidad del material curricular en las dos lenguas, y/o la propia solicitud del alumno/a

[19] 1. Certificado de asistencia: Los certificados acreditativos tendrán la calificación de asistencia cuando la actividad formativa no contemple la superación de una prueba que deba ser evaluada por el profesorado. 2. Certificado de aprovechamiento: La certificación de aprovechamiento se expedirá tras la superación de una prueba o ejercicios prácticos establecidos por cada responsable de la docencia.